Fait le 25 octobre 2016

Le Pays Basque est entré dans une nouvelle ère de son histoire. Après plus de 5 décennies de lutte armée, avec des victimes et des traumatismes dans tous les camps, cela fait 5 ans que l'ETA a pris l'initiative de cesser la lutte armée.

Nous avons été de ceux qui attendaient et espéraient réclamaient ce moment. Mais la question n'est pas réglée pour autant. Il faut la régler ! L'Histoire nous l'enseigne, nous l'impose...

Tous les exemples, partout dans le monde, tous les experts en règlement de conflits savent que la paix et le vivre ensemble ne s'instaurent que si les différents protagonistes se mettent autour de la même table. Nous savons que cela ne se décrète pas, et qu'il faut donner du temps au temps... Mais, nous savons aussi que si cela ne se fait pas, cela peut se traduire en plaie non soignée qui s'infecte.
Il faut l'éviter. Pas seulement par crainte d'un éventuel retour en arrière, mais pour créer les conditions de paix collective, et donc de paix intérieure de chacun.

Cela suppose l'implication de la société civile qui a un rôle important dans la réussite du processus. La population du Pays Basque souhaite le dialogue.
La Communauté Internationale s'est impliquée, que ce soit par la conférence internationale d'Aiete ou la Commission Internationale de Vérification.
Il faut maintenant que les Etats français et espagnols s'impliquent dans la résolution démocratique du conflit pour aboutir à un accord de paix dans le respect de toutes les victimes.

Voilà les domaines où le processus de paix doit se traduire par des changements significatifs : mise en oeuvre des conditions et des procédures de désarmement et de démantèlement des infrastructures de l'ETA, reconnaissance et réparation dues à toutes les victimes ; devoir de mémoire et de vérité ; transfert sur le terrain politique des questions qui ont généré le conflit militaire ; application de la loi pour la libération conditionnelle et anticipée des prisonniers, mais également mise en perspective d'un processus visant à régler définitivement cette question en permettant, au final, la sortie définitive de tous les prisonniers. Tous les processus de règlement de conflit sont parvenus à intégrer cela, de façon partagée, comme un élément déterminant pour tourner la page du passé et instaurer une paix durable.

Dans cette perspective globale, notre intervention actuelle porte sur la question du désarmement. Cette dernière a été identifiée par tous les spécialistes et dans toutes les régions de conflit comme un élément clé du processus de paix. " *Nous appelons l'organisation ETA à poursuivre jusqu'à son terme son processus de déarmement. Nous nous joignons aux efforts de la communauté internationale pour que les gouvernements français et espagnols s'impliquent dans ce processus et demandons la mise en place d'un espace adéquat qui garantisse que ce désarmement se mène de manière coordonnée et contrôlé* ". Extrait du "Manifeste pour la paix au Pays Basque" lu à Paris, à l'issue de la Conférence pour la paix le 11/06/2015. Mais pour que ce désarmement se fasse de façon "*coordonnée et contrôlée* ", cela suppose la coopération ou tout au moins la participation des Etats ce qui n'est malheureusement pas le cas. Ceci crée une situation totalement absurde où l'organisation armée veut remettre les armes à un Etat qui refuse que cela soit possible. Devant ce constat qui nous attriste et nous inquiète profondément, nous avons décidé d'intervenir en tant que citoyens libres, et conscients des risques que peut engendrer cette situation de blocage. Nous nous situons en intermédiaires entre une organisation armée avec laquelle nous n'avons aucun lien ni subordination, et un Etat que

nous voulons amener à réfléchir. Ceci peut être qualifié de prétentieux, mais nous avons décidé de prendre nos responsabilités avec la conviction que cela peut être utile à la paix.

C'est pourquoi, nous avons proposé à l'organisation ETA de transférer à la société civile la responsabilité politique de la destruction de son arsenal militaire.

Nous avons choisi de le faire de manière publique et assumée, à l'instar des engagements dont nous sommes porteurs. Ces engagements sont publics et transparents. Ils sont caractérisés par l'implication personnelle, le souci de la démocratie, le choix de la non-violence, le respect de chacun, le sentiment que toutes les douleurs sont de même intensité, et sont égales quant aux effets et conséquences qu'elles génèrent. Ils sont caractérisés aussi par la conviction que ce qui paraissait impossible hier, peut demain être réalité. Nous voulons, en posant cet acte fort, créer le déclic permettant à tous les protagonistes potentiels d'un processus de paix juste et durable en Pays Basque de s'y impliquer pleinement, de le rendre possible, rapidement et totalement.

**Michel Tubiana** **Mixel Berhocoirigoin** **Jean Noël Etcheverry (Txetx)**
Président d'Honneur
de la Ligue des Droits de l'Homme

2016ko urriaren 25ean egina

Euskal Herria bere historiako garai berrian sartua da. Bost hamarkada baino gehiagoko borroka armatuaren ondoren, alde guzietako biktima eta traumatismoekin, badu bost urte ETAk borroka armatua uzteko iniziatiba hartu zuela.

Une hori espero eta eskatzen zutenetarik ginen. Baina arazoa ez da hargatik konpondua. Konpondu beharra da! Historiak irakasten digu, inposatzen digu…

Adibide guziek, mundu osoan zehar, gatazken konponbidean adituak diren guziek badakite bakea eta elkarbizitza gauzatzen direla, soilik bertako parte hartzaileak mahai beraren inguruan jartzen badira. Badakigu hori ez dela agindu bidez erabakitzen eta denborari denbora eman behar zaiola… Baina badakigu ere, hori egiten ez bada, sendatu gabeko zauria bilakatu eta infekta daitekeela. Ekidin behar da. Ez bakarrik gibelera itzultzeko arriskuarekiko beldurragatik, baizik eta bake kolektiboaren baldintzak segurtatzeko eta horrekin, bakoitzaren barneko bakea.

Horrek gizarte zibilaren inplikazioa eskatzen du, prozesuaren arrakastan rol garrantzitsua baitu. Euskal Herriko biztanleek elkarrizketa nahi dute. Nazioarteko komunitatea inplikatu da, bai Aieteko nazioarteko konferentziaren bitartez eta bai Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen bitartez. Orain frantziar eta espainiar Estatuek inplikatu behar dute gatazkaren konponbide demokratikoan, bake akordioa lortzeko, biktima guzien errespetuan.

Hona aldaketa adierazgarriak gauzatzen ikusi behar dituzten bake prozesuaren eremuak: ETAren armagabetzea eta azpiegiturak desegiteko prozeduren baldintzen obratzea eta biktima guziei zor zaien erreparazioa; memoria eta egia eginbeharra; gatazka militarra eragin duten gaiak, eremu politikora pasatzea; legearen aplikazioa presoen baldintzapeko askatasuna eta askatze aitzinatua gauzatzeko bai eta arazo hori behin betiko konpontzeko bidea ekarriko duen prozesuaren aurreikuspena, azken puntan preso guziak ateratzea ahalmenduz. Gatazken konponbide prozesu guziek lortu izan dute molde partekatuan hori integratzea, iraganaren orria itzultzeko eta bake iraunkorra ezartzeko funtsezko elementu gisa.

Ikuspegi orokor horretan, gure oraingo parte hartzea armagabetzearen gaian da. Azken hau, gatazkak ezagutu dituzten eskualde guzietako aditu guziek, bake prozesuaren elementu gakoa bezala identifikatu izan dute. *“ETA erakundea bere armagabetze prozesua bururaino jarraitzera deitzen dugu. Nazioarteko komunitatearen indarrekin bat egiten dugu frantziar eta espainiar gobernuak prozesuan inplika daitezen eta eremu egoki bat plantan ezartzea eskatzen dugu, armagabetzea molde koordinatuan eta kontrolatuan gauzatzea bermatuko duena.*“ Parisen iragan 2015/06/11ko Bakearen aldeko konferentzian irakurri zen “Euskal Herriko Bakearen aldeko manifestua”ren zatia. Baina armagabetzea *“molde koordinatuan eta kontrolatuan”* obra dadin, horrek Estatuen kooperazioa edo bederen parte hartzea eskatzen du eta zoritxarrez hori ez da hala. Honek egoera erabat absurdoa sortzen du, bertan erakunde armatuak armak eman nahi baitizkio, hori posible izatea onartzen ez duen Estatuari. Nahigabetzen eta zinez kezkatzen gaituen egoera honen aitzinean, hiritar libre gisa parte hartzea erabaki dugu, blokatze egoera honek eragin ditzakeen arriskuez jabeturik. Bitartekari gisa kokatzen dugu geure burua, loturarik eta menpekotasunik ez dugun erakunde armatuaren eta pentsarazi nahi dugun Estatuaren artean. Harrokeriatzat jo datteke hau, baina gure erantzukizunak hartzea erabaki dugu, bakearentzat baliagarria izan daitekeelakoan baikaude.

Hara zergatik proposatu diogun ETA antolakundeari, bere armategi militarraren desegitearen ardura politikoa gizarte zibilari pasa diezaion.

Molde publikoan eta guregain hartuz egitea erabaki dugu, daramazkigun engaiamenduen gisara. Engaiamendu horiek publikoak eta gardenak dira. Inplikazio pertsonalak, demokrazia nahiak, bortizkeria-ezaren hautuak, norbanakoen errespetuak eta min guziak intentsitate berekoak direla eta eragiten dituzten efektu eta ondorioei dagokienez berdinak direla sentitzeak, ezaugarritzen ditu. Ezaugarri gisa dute ere sinesten dugula atzo ezinezkoa iduri zuena, bihar egia izan daitekeela. Ekimen azkar hau gauzatuz, buruetan aldaketa bat eragin nahi dugu, Euskal Herrian bake prozesu zuzen eta iraunkorraren aldeko parte hartzaile potentzial guziei bertan osoki inplikatzea ahalbidetuz, laster eta erabat egingarria izan dadin.

**Michel Tubiana**
Giza Eskubideen Ligako
Ohorezko Presidentea

**Mixel Berhocoirigoin**

**Jean Noël Etcheverry (Txetx)**